



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—:	IX Urtea	1927'ko	Oñila	101 Zenbakia	:—:
-----	----------	---------	-------	--------------	-----

Zazpigaren eta amargaren aginduak

*Non furtum facies.—Non concupisces domum proximi.
tui (Exod. XX-15-17)*

*Ez duzu ostuko.—Ez duzu lagun urkoaren etxerik
naiko.*



XIT maitagafia da Jaungoikoaren legea. Boskañen aginduaz zaintzen du gizonaren bizitza, seigafenaz bere garbitasuna, zazpigafenaz beraren ondasunak eta zortzigafenaz beronen izen ona.

G. Zein da Jaungoikoaren legeto zazpigaren agindua?

E. Jaungoikoaren legeto zazpigafen agindua, ez ostutzea da.

Ostutzea da bere jabeak nai ez duela gauza bat artzea edo kentzea.

Iru aldetara ostutzen da:

Lapuretat, ondasuna bidegabekeria jabeari kentzen ba zaio berak nai ez dula, edo ez lukela naiko ta bidez ez lukela naiko kentzea ezagutu ta. Onela pe-

katu egiten dute jabeari indafez dirua edo ondasun bat esku artetik kentzen diotenak; ixilka gauzak artzen dizkiotenak jabeak ikasi gabe. Au ezta indafez egiten, baño jabeak ikusiko ba-lu, bear den bidez eragotzi edo galaraziko lukena egiten zaio ta azkenean ostutzea da lengoa bezalaxe.

Saldukeriz, saltze-erostetan legezo itxura egiñez, maltzurkeriz, gezur kaltegariz, itxuronaz, *pixuetan*, neufietan edo saltzen diran gauzetan truke bidegabeekoak egiten direnean.

Onela pekatu egiten da gauza galdua ontzat afazten ba-zaio erosleari; *pixu* edo neufian irudi ez duela kentzen ba-zaio; ura ardo edo esnetako saltzen ba-zaio; lendik jokaturik edo galdurik dauzkan gauzak edo erantzun bear gogofaren pean dauzkan gauzak alakorik gabe balitu bezala saltzen ba-litu.

Zikoizkeriz ostutzen da lagun urkoak (projimoak) dirua edo zerbait gauza bear duala ikusi-ta emalearen irabazi geiegiakin ematen ba-zaio. Bereiz gauza bat ordañez emateagatik, ez diteke ezer kendu; baño baldin ba-da ere zerbait irabazi eskatzeko aitzekia, geiegizkoa eskatzea, lagun urkoaren beafagatik, bidegabekeria da.

Onela pekatu egiten dute ematen duten ale edo aziaren ordañez emana ta alakoaren erdia, edo euneko amar edo geiago eskatzen dutenak.

¿Zer agintzen digu zazpigarfen aginduak?

Inñori gauzarik ez kentzeko, ta bere jabeak nai ez duala besterenik ez eukitzeko, agintzen digu zazpigarfen aginduak (B. K. I.)

Zazpigarfen aginduak eskatzen digun lenengo gauza adierazi dizugu, ostutzea zer dan adiraztean. Ikusi dezagun zer esan nai duan *jabeak nai ez duala besterenik ez eukitzeak*.

Jabeak bidez nai izan gabe aren gauzaen bat gordetzea, ostutzea bezalaxe da.

Onela pekatu egiten da:

1.^a Bein utzi zigun dirua edo gauza jabeari ez ba-zaio itzultzen, edo berak onozkero gogoan ez duelako edo luzaroan eskatu ez dualako edo.

2.^a Bestek lagun urkoari artua izkutatuko bazendu.

3.^a Mutil, moñoi, neskame, mirabe edo langileai beren irabazia ez ba-zaie ordaintzen edo bear litzekenean ez bazaie ordaintzen.

4.^a Erosia ordaintzen zaionean bear baño geiago eman eta ixilik gordetzen bada; edo berdin dana, edozein diru kontuetan, zor zaigun baño geiago ematen ba-zaigu.

5.^a Zoñak ordaintzen ez ba-dira bear litzekenean eta al litekenean, artzeko daukenak eskatzen ez duelako, edo "gauden baño bear aundiangoan gaudela uste dualako.

6.^a Ordaintzeko ez daukanarena egiten duanak; bereala diruetxe ezin erantzun duanarena egiñik aldegitzen duanak.

7.^a Non-nai arkitzen dan diru edo zerbait, jabeaz galdetu gabe gelditzen duanak, etxera datozen oño, uso edo ofelakoak beretzat gelditzen dituanak; eta ez gutxiago bere ardietara ta biltzen diranai bereen ezaugafi edo señalear egiten dienak.

8.^a Azken-naian edo testamentuan agindutakoak betetzen ez dituanak edo ango aginduetatik zerbait bere edo nai duanaren alde aldatzen duanak.

¿Zer debekatzen digu zazpigaren aginduak?

Iñori bere ondasunetan kalte egitea debekatzen digu zazpigaren aginduak (B. K. I.)

Norbaiteri bere ondasunetan zerbait kalte egitea edo aren ondasuna



Ama Birjiñaren Biotza

galtzera botatzea, ostutzea bezalaxe da.

Onela pekatu egiten da abereen bat elbafitzen ba-zaio, etxe bat edo beste zerbait efetzen ba-zaio.

Baita ere norberaren kaltezko auzi bidegabekoak jartzen bazaizkio, edo gezufezko befiketakin bizi-bidea, eguneko ogia, edo irabazia kentzen ba-litzaio.

Azkenean kalte aundiak eman dezazkete altsaiak, unaiak, artzaiak, mendizaiak eta, beren eginkizuna ez betetzeagatik.

Eta ez gutxiago Legegizonak, eskribau, epailari edo juezak, sendalariak, Irakasleak, aitordekoak, langile-buruak eta eraentzale edo administradoreak, beren eginkizuna ez betetzeagatik alako kalteak ba-ietorz.

Ostutze edo kalte ematen dutenetan ¿ba-da beste obendunik?

Egiten diran lapufetetan eta ematen diran kaltetan utsegiten dute onako auk:

- 1.^a *Agintzaleak*, ostutzea edo gaitza egitea agintzen duanak.
- 2.^a *Eragileak*, gaitza edo lapufeta egitera eragin edo nola egin erakusten dionak.
- 3.^a *Ontzat ematen dionak*, besteri kalte ori bildufik gabe egin dezaiokeela erakusten dionak.
- 4.^a *Axekalariak*, ongi egingo duala esanez edo kalte egitea bulkatzen duanak.
- 5.^a Gaizkileari bere buruaren eta gaiztakeriaren izkuta-bidea eskeintzen dion *Izkutatzaileak*.
- 6.^a Artutako gauza nola dan jakinik, artatik artu egiten duan *Artzaleak*.

Aurtxo batek Maria'r

¿Lore-zalea zera,
ene Amatxo...?
Ora, bada, zuretzat
iru sortatxo:
iru sortatxo txuri
goñi ta ori...
Zuretzat bildu ditut...
Amatxo, tori.
Zuretzat oiek biltzen
zelaitik-zelai
ibili naiz gaur, Ama,
pozez eta alai;
t' ederenak artuta
nator Zugana...
Beroikin artu nere
muiñ ta laziana.
Loretxu oiek orñxen
zuri begira

beti egon, ta pozez
orñxe ilko dira...
Loretxo bat nai nuke
izan nik ere,
ez eiteko Zugandik
alde beñere.
Gaizto asko omen dira
bazeñ oietan...
Beti maiteko zaitut
nik, bai, benetan;
Zurekin bizi beti,
beti Zu maite...
Nere Ama kutuna
beti izan zaite.
Artu, ba, Zutzat gaurtik
nere biotza,
Zutzat nere bizitza
e' eriotza.

Jauregi'tar Luis.



Prantzisko santua goratu naiez

Asis'ko Prantzisko santuari gorapidea eman nai dio Euskaleñi osoak bere zeruratzeko zazpigarren eunurte-betetze ontan. Ortarako Napañoko uri-buruan Oroigarì eder bat nai zaiola goratu, badakizute gure irakurleak. Nai litzeke ordea, urëngo eunurte guzietan gure Iruña (Pamplona) zar au ikustera datozen guziak begiak beterik utzi lezazken oroigarì edera izatea berori.

Baño oroigarì au guziok goratua izatea nai litzeke, txiki ta aundiak, Irugarëndarak eta ez diranak, aberatsak eta beartsuak.

Ortarako aukeratu dira asko eratako ariak, batzuek 1000, beste batzuek 500, 250, 100, 50 eta 25 pezeta gostako diranak, onela gutxien dezaketenak ere ekar dezaten beren arikoxkoñ.

Baño beartsuak ere goratu bear dute Asis'ko Eskaletxoá ta beren eskeñi txikitxoarekin guziak etori naiez daudela gaude. Argatik esker onarekin ala ere artuko dira pezeta batetik gorako eskañi guziak.

Uste dan eran erantzuten ba-du Euskaleñiak eta bear dan dirua biltzen ba-da, Batzordeak nai dio erantzun bere aldetik Album batean guzien izenak jari ta gañera 5 pezeta bedere eman duen bakoitzari Gure Aitaren bedeinkazioarekiko medala domiño bana emanaz, eta gañera gure Aitaren bizitza bat 10 pezeta bedere eman dituenai.

Emale guzien onez meza bana ematen da Iruña'ko Kaputxinoen eta Oliteko Prantziskaren elizetan ilabete bakoitzaren 4'ean.

Limosna oiek Kaputxinoen komentuetan eman edo Giro Posta'ez Iruña'ko Kaputxinoen Aita Nagusiari bialdu.

ESKEÑIK ASKO...!

Biotz-biotzetik eskefik asko esaten diogu ofialde oen bidez Ameriketako euskaltzaleari egin digun diruzko mesede ain aundiagatik.

Poz-pozik agertuko genuke emen bere izena; baña ez du inholaz ere nai berak, ta ofegatik guk ere ixildu bear.


Biotz-biotzetik eskefik asko...!





Paduako Antonio Deuna

Ziñausle bat nola onbiurtu zuan



RANTZIKO Tolosa aldean eztabaida aundia izan zuan Paduako Antonio Deunak ziñausle (*ereje*) batekin Aldareko Sakramentu Santuaz; eta, ia siñestarazirik, bide onera etortzeko zegoanean, ziñausleak esan zion Antonio Deunari: «Itzak alde bat utzirik, egintzaetara jo dezagun. Zuk efi guztiaren aufean, mirari baten bidez, erakutsi al badidazu, aldareko Sakramentuan Jesu Kisto dagoala, ziñausgoa utzirik, Elizak erakusten duana sinistuko det».

Eta Antonio Deunak, eskatzen ziona egingo zuala erantzun zion; eta

orduan ziñausleak iardetsi zion: «Nik abere bat, mando bat, itxian eukiko det eta iru egunez janik ez diot emango. Iru egunen buruan, efi guztiaren aufera eramango det eta zaldale edefa erakutsiko diot. Zu beñiz beste alde tik jafiko zera, Jesu Kistoren gorputza dala diozun, gauza ofekin. Eta mando goseak, bazka utzirik, gauza guztiak agur ona ekafi bear diotela diozun, Jaungoiko ofi agur egiten badio, zuk esaten dezuna, Elizak erakusten duana sinistuko det».

Eta Antonio Deuna ori egitera jafi zan. Eta autatu zuten egunean ozte aundia bildu zan efiko enparantza nagusian.

An zan ziñauslea, bere aldezko gizasail aundia lagun zuelarik, mando gosea ta zaldalearekin. Antonio Deunak aldeko elizatxo batean meza eman zuan eta meza ondoan efi guztiaren aufera eraman zuan Jesu Kistoren gor-

putz txit deuna eta, guztiak ixilduarazirik, mando gosetiarri esan zion: «Gai ez izan afen, nere eskuetan daukadan, ire Irazalearen izenean esaten dikat, abere, eta agintzen, bereala apal etofi eta bear dan agufa egiteko, ziñausleak ikasi dezaten gauza guztiak beren Jaungoiko Irazalearen mendeko dirala eta Jaungoiko Irazalea apaizak egunoro beren eskuetan erabiltzen dutela».

Bitartean ziñausleak jana eskeintzen zioten mando goseari. Baño, afitzekoal, abere gosetia, Antonio Deunaren esanera, zaldalea utzirik, burua makurtu eta belaunikatu egin zan Sakramentu txit deunaren afean.

Gertaera afigafi ori ikusirik, ziñauslea ta bere lagun asko onbiurtu ziran.

Otar A. O. M. C.

ANTONIO SANTUAREN BITARTEZ ESKARI TA ESKEĖAK

MAÑARI (Bizkaya).—Ene aita agurgafia: Emen bialtzen deutzat, Padua'tar Andonik egiñiko osatze bat, bedoŕen aldizkingi ofetan argitaltzeko gai baderitza.

Orain urte batzuk gaixorik oso txafto aurkitzen nintzan, osagafi gustiyak niretzat alpefik ziran, geruago eta txafago niñean.

Osagiliak euren ustia galdu eben nigan, ba ezeguan ezer ni osatzekorik. Ofetan gomutau nintzan Andoni deunaz eta eskatu neutzan osasuna; etzan izan alpefik, bada ebakintza mingafi baten ostian, emouston osasuna ta poza

Eskefak aufetik emonaz, agur egiten deutsa bedoŕen otsein onek.

Neskatila Andoni-zale bat

Beartsuen ogitako

Manuela Josefa Arostegi (Berastegi) 10 pezeta.

¡Ama, zuri!

Lili txuri ta liraiñ, 'eder bat
Zerurontz dago jasua;
Usai gozoa edatutzen du
Ta du izena gogua:
Uso txuriya egan bezala
Gorontz jo nayeiz dijua;
Txoriyak goiti dabilta baño
Askoz gorago gogua.

Bere ametsa izan izan da
Beti zerurontz jotzia,
Emendik urun, zeru goi goyan
An dauka bere kabia:
Lili txuriyan iraulkatzen da
Goizian goizik erlia,
Bañan arima gogotikago
Zure altzoan, Maria.

Xulufnin txiki txiki politen
Usaya bai da goxua;
Bañan arima garbiyarena
Askoz da goxuagua:
Gora beraka lokartutzen da
Portuan txalupatxua,
Baño geldi ta polikixago
Zure aurian gogua.

Uda befian goxoa bada
Aize otzaren soñua,
Zeru goi-goyan zer izanen da
Amaren besarkatxua?
Lore multxoa txikiya ba da
Bertan daramat gogua:
Artu ezazu, Amatxo laztan:
Bakoitzan doa musua.

Arrayozko Artzaña

O. M. Cap.



Artzai - Onaren - Ama

***** ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ *****

(Coral: *Liebster Gott, wann werd'ich sterben*)

J. S. BACH

Ze-ru lu-fen Jainko Jau - - - na Zu-re
Gu e-re A - ma laz - ta - - - na Zu-re

se - me - a de-zu; } O - be-nik ez da - gi - gun
u - me gai - - - tu-zu; }

zain gai-tzatzu gau ta egun deusen bel - du-fik ez - tu - - - -

gu Zu al - de - an ba - - - zai - tu - - - - gu.



Euskaldun Mixiolariak Kansu'rontz

(Yaiaipena)



ENGOAN esaten nizuten, Kansu'rako bidean lo egiteko izaten genituen *hotel* edo ostatuak, nolako estalpeak ziran. Estalpe oyetan, lufean, zurezko olen ordeztutsa, eta zuei, eta guri lanago, oso beahezkoak iruditzen zitzaizkigun gauza guztien ordeztutsa izaten genduela esan nizuten.

Atea isteko aterik ez genduen izaten, eta askotan gabez, arpegia *garbitzeko* izaten genduen ur *zikiña* izoztutzen zaitzaigun.

Geyenetan, leyorik ez, batzutan, leyo zuloa bai, baño isteko leyorikez.

Geyenetan, goizeko irutan edo lauetan jeiki izan gera. Beti bat edo batek meza eman du, ta gañerakoak Jauna artzen genduen. Lotara oso goiz juaten giñan, ilundu ezkerro, zer egiñik ez genduen eta.

AZAROA, 30, ASTEARTEA. Gure gurditan ibaya bi aldiz igaro, mendi aundi-aundi bat igo ta jetxi, eta atsaldean goiz, Tatzeying efira eldu giñan. Emen apaldu ta lo.

LOTAZILA, I, ASTEAZKENA. Bidean, gaurdaño esaten ari giñan ez genduela ezagutzen Txinan gudurik (gefarik) ba-zan ala ez, baño gaur eza-gutu azi digute. Efitik ilunpetan abiatu giñan; ala ere, goiz goizetik, bazetofen yendea, gure afez afe Shensi aldetik Honan aldera. Gero ta yende geyago zetofen, gelditu gabe; eguerdirako bidea bete-beterik, eta guda-mutil asko, batzuk esku-utsik, besteak beren iskiloakin (armakin). Batzuek, zaurituta bezela, beren lagunen bizkafetan zetozen.

Wensiang efiairen ondotik goizeko bederatzia aldean igaro giñan. Ge-

roxego automobil bat ere arkitu genduan; bertan bost edo sei gudari zetozen.

Amafak aldean gurdi guztiak gelditu ziran. Geldialdi luzea. Gurditan geundenok ez genekien zer zan. Egurdian, aufera yafai beaŕean, gira egin-da, etofi giñan bidetik atzera abiatu giñan. Beŕiro Wensiang ondoraño eldu giñan. Wensiang, bidean ikusi ditugun beste eŕi geyenak bezelaxe, afesiz (muralaz) inguratuta dago. Afesitan lau ate, eta atepak zaitzen, gudiariak.

Gu atzera gentozela, sartaldeko atearen auferaño eldu giñan. Nere gurdia oraingoan aufeneko zetofen eta dena ederki ikusi nuan.

Ate zaitzen oraingoan ez zeuden bi gudari, zortzi edo amar baizik.

Eŕiko atearen aufetik igarota, kanpoko aldetik geneukan bidea; ez genduen eŕian bafunera sartu beafik. Ala ere, ateko atezaiak, gelditu azi egin zituzten gurdi guztiak. Ez dakit zer itz-egin zuten gure itzai eta moŕoi batekin, bañan oek gure buruzagi zan Karpus Anayari deitu zioten.

Karpus Anaya etofita, bere agiriak (pasaporteak) noski erakutsi azi zizkieten, eta guretako moŕoi batekin bafura eraman zuten. Emen luzaro egon giñan geldirik. Ez genekien zergatik gentozen atzera, eta ez genekien andik igarotzen gudariak utziko ziguten ala ez. Gu geldi geundela andik igarotzen ziran guztiak, agiriak eskatzen zizkieten gudariak. Agiriak erakutsi gabe aufera juan nai izan zuan mutil bat, bizkafean joka gudariak luferra laster bota zuten.

Noizpait agertu zan Karpus anaya gudari batekin; onek atekoakin itz egin zuan, eta aufera juaten utzi ziguten.

Atsaldeko lauak aldean eldu giñan beŕiro, lengo gabeen lo egin genduan eŕi berera. Denok autsez zuri-zuri eginda, ederki egafitu eta gosetuta. Batzuek, gosearen gosez aulduta, jateko gogorik ere ez omen zeukaten. Iluntzean egin genduan gaurko aparta ta bazkaria.

Gure *ostatuan* alkafekin bildu giñan bezin laster asi giñan alkafi gal-




Olakoxe bat baño geyago ikusi ditugu gure bidean, eta izotz aundia zegolarik. Gu ondo jantzita, otzik, eta gizaxo oek!....

P. Gregorius.

dezka, zergatik ezin genduan yafai gure bidean, zer gertatzen zan Shensi aldean.

Guk juan bear genduan bidean gudua (gefa) omen zan eta guk bidean ikusi genduan yende eta gudari guztiak igesi omen zeloszen.

Sianfu deritzayon urian, iru edo lau ilabetea, esi batez bezela inguratuta euki zuan gudaroste (ejerzito) batek bestea. Bafungoak, kanpokoan



Erensugearen putzua (Txinan)

esia zulatuta, egun oetantxe efitik atera omen ziran, eta gure bidean alkafeekin gudu bizian omen zebiltzan.

Betilun xamar oyeratu giñan oraingoan, Kansurako bidea utzi bear izango ote genduan bildur giñan.

LOTAZILA. 2, OSTEGUNA. Bazkalondoan, Tatzeying efitik ordu bete bateko bidean dagon beste efitxo batera aldatu giñan, Kansu aldera ezin ibili giñan bitartean emen egoteko asmoz. Hwangho ibayaren ondoondoan dago efitxo ori

Danok lo egiteko, meza emateko, bazkaltzeko, etxe antzeko estalpe txiki bat genduan. Gure oyak lufean estu-estu. Geok eta gure jantzi guztiak autsez ederki zikinduta. Beafik negua zan, eta ez zitzaigun moxoforik sortu.

Lekaimeak (*monjak*), zauriak eta sendatzeko, sendakayaz, goataz eta zapi zuriz betetako kutxa aundi edo kaja bat ba-zeukaten.

Berealaxe agertu zan efikoen bat, ez dakit nungo miña zeukala-ta, sendatuko al genion galdezka. Lekaimeak, sendatzeko zeozer eman zioten. Las-ter efiko eri ta min zuten guztiak asi ziran gugana etortzen. Buruko miña,

begitako miña, besoko edo urdaileko miña zutela-ta, goizetik arátseraño gure ate aúfean asi ziran biltzen.

Esan bear izan zitzayen, guk bazkaldu ondorean, nai zuten guztiak, an bertan zegoan *miau* (pagoda) batean agertzeko. Ara juaten ziran lekaimeak (monjak) beren sendakai ta zapiakin, eta bi edo iru orduan sendaketak egiten aritzen ziran. Onela egon giñan zortzi egunean.

Jesus Aúfaren Teresetxo Deunari bederatzíufena egiten asi giñan Kansu'rako bide ona lenbaitlen izateko lagun zekigun. Germaneraz (alemanez) egiten zuten-eta, nik ulertzen (entenditzen) ez nualako, Adoain'dar Esteban Aitari asi nintzayon egiten. Genova'tik abiatu nintzan ezkerro, bein baño ge-yagotan Aita oni bere laguntza eskatu izan diot, eta beti, berari eskatu dioten bezela gertatu zaizkit gauzak. Oraingoan ere berak eta Teresetxo Deunak ez ziguten uts egin.

Bederatzíufeneko azkeneko egunean, asi giñan beñiro Kansu'rontz ibiltzen, eta oraingoan ondo.

Wensiang efian zegoan gudari-nagusiak gure buruzagiari idazki bat eman zion, bideko gudariak ondo artu genezaten.

LOTAZILAREN 10'GARÈN egunean, Tungkwan efian giñan, Shensi'ko probintzian. Efi ontan *aduanak* daude, ta gure itzayak, Sianfu'rako ta Kansu'rako zeramazkiten salgai guztiak, batez ere kebelafa (tabakoa), aurenetik zearo azaldu nai izan ez zutelako, amafetatik ordu bik arte bertan geldi egon bear izan genduan.

LOTAZILA, 12, IGANDEA. Goizean ilunpetan gurdira zijoala, Aita Silbester'ek zulo batean anka sartuta miña artu zuan. Anka dena auditu zitzayon, eta bost edo sei egunean, ezertarako ezin izan zan bere oñez ez zutitu ez ibili. Bere lagunen eskuak eta bizkarak bear izan zituan. Txonkati-lako ezufak atera ote zituan bildur giñan, bañan, Jaunari esker, olakorik ez zan.

LOTAZILA, 13. Sianfu'ra eldu giñan. Prantziskar italiak daukaten misio-etxera joan giñan. Oso ederki artu ginduten. Aita Ormazabal euskalduna ere etxe ontan izaten da, baño egun oetan beste toki batera alde-egitua zan eta ezin ikusi izan genduen. Txina'n euskaldun asko dira, baño guk oraindano bat besterik ez degu ikusi: Shanghai'en Aita Iruafizaga.

Sianfu'tik AMABOSTEAN abiatu giñan. Egun ontan ez dakit nola ez giñan denok Weiho ibayan gelditu. Egufez eta lufez egindako zubi baten gañetik igaro bear izan genduan. Gurdiak gañean zijoazela, zubia, ezker eskuira balantzaka zebilen. Guk denok gurditatik jetxi bear izan genduan. Zaldi batzuk ere askatu zituzten, bi zaldi alkafen ondoan zubi gañean ezin ibili ziran-eta; ain estua zan. Ibaya aundia ta zabala da gero, ta zubia oso luzea.


Gaur ere Teresetxo Deunak eta Esteban Aitak, gu ondo zaitzen izan zuten lana.

(Yafaitzeko).

P. GREGORIUS, O. M. CAP.

Miss. Ap.


Tsinchow, Kansu, Otsaila, 13. 1927.



LEGE BERI BAT

Aur asko duten familiei Gobernuaren laguntza. (1)

(1926'ko Garagarilaren 21'an Españiko Gobernuak emandako legea)



ADUGU lege on bat langile askoei, basefitar ez gutxiei on datorkiena. Zortzi aur edo zortzi baño geiago dituzten ta janaritzen dituzten sendien buruari diruzko eta beste erazko laguntza ematen dio Gobernuak lege ofen bitartez.

Ortarako bete bear diran bearezkoak:

1) Legearen araura sendiaren (familiaren) buru izatea. 2) Berea dun etxean bizi izan afen, *diruzko edo lurreko lan-saririk bakarik bizitzea*. 3) Urtean 6.000 laurleko edo peseta baño geigo saritzat ez eukitzea.

Gobernuaren laguntza urtero.— Zortzi aur baditu, 100 peseta. Bederatzi badi-

tu, 150. Amar baditu, 200 peseta. 11 baditu, 250 peseta. 12 baditu, 300 peseta. 13 baditu, 375 peseta. 14 baditu, 500 peseta. 15 baditu, 600 peseta. 16 baditu, 700 peseta. 17 baditu, 850 peseta ta 18 edo geigo baditu 1000 peseta.

Beste onurak (protxuak): Gobernuaren eskola guztitan utsean ikasiko dute nai dutena.


Gobernuak ematen ditun irabazpide guztitarako besteak baño lenago autatuak izango dira.

(1) Pozik argitaratzen degu gure lankide azkar *Amatalde'k* biali digun lan eder au. Irakurleak, ondo aditu: ezpaien (dudaen) bat baldin badezute, guri bialdu zuek zeroiek edo ordezkariaren bitartez ta guk erantzungo diogu pozik zuen ezpaiari (dudari).

—*Urñlan argitaratutako Reglamenteuak argitzen du laguntza ori iriatteko ibili bear dan bidea.*

1) Madril'ko Lanaren Ministeriora eskea egin bear da.

2) Eske ofekin batean bialdu bear dira: a) *eriko-biztanleen lerokadako* (eriko padroi) *egiztabidea* edo *Zertifikadua*, sinistarazitzeako sendiko Buru dala, ainbeste aur edo seme-alaba ditula ta berak janaritzen ditula.



Usurbil trenetik artu-ta.

(Alegi A'ren. argzk).

b) *eske ori egiten dun beraren ziñez egindako agerpen bat*, sinistarazitzeako urtean 6.000 peseta baño gutxigo lansaritzat artzen ditula. c) langile-nagusiaren ziñez egindako beste agerpen bat azalduaz zenbatekoa dan langilearen saria. d) seme-alaben jaiotzaren ikufitza edo inskripzioa. e) beroyen biziaren egiztabidea.

3) Eske oyekek aurkeztu bear dira Efiko Agintariari edo Alkateari: ta onek amabost egun baño lenago Madril'era bialdu bear ditu bere argibidea edo informea emanaz.

4) Paper oyekek guztiak edo egiztabide oyekek guztiak utsean egin ta eman bear dituzte ortarako jafiak daudenak.

5) Madril'koak ontzat artzen badute eske ori, Efegearen izenean agindu bat bialtzen dute: ta agindu ori dagon papera bear diran lekutan aurkeztatuaz, iritxiko dituzte len esandako onurak, ikasketak utsean egitea, zerga (kontribuzio) batzutatik askatzea edo zerga oyekek ez ordaintzea, ta olako beste onura batzuk oso onak.

Oaf batzuk. a) Seme-alaba oyekek biziak izan bear dute. b) Seme-alaba oyekek naiz 23 urtekoak edo geigokoak Gipuzkoan, Araban ta Bizkai-an ta 25 urtekoak edo geigokoak Napafoan izan, aien pamiliko Buru danarekin bizitzea ta ofen kerizpean bizitzea.

c) Urtero befitu bear da eske ori; agindu ori iritxi zaneke urtebete-tzeari jafaikitzen dioten bi ilabete bañuan befitu bear da eske ori, egiztabidez agertuaz irixteko aurkeztu ziran beafezko ayek berak irauten dutela ori befitzeko.


Seme-alaba ugari izatea oitura onen ezagungafia da. Jainkoak laguntzen die olako gurasoei era askotan. Begira bada. Naiez seme-alaba gutxi izatea efi bati datorkion gaitzeririk aundiena da, sinismen galduaren ta oitura txafen ezagungafia da. Zorionak pamilya ugaria dezutenoi.

Amaialde.

Oratz-lanak

Ufe-oriaz edo beste koloreko arpileraz esku-zisku edo boltsa egin ditek. Alboak kartoiezkoak, amor egin ez dezaten, ta bazterak satenezkoak.

Kirtenak ere arpilera tolestuaz ta gogor josiaz; zisku edo boltsaren aoa zabalik utzi bear da edo ixten ba'da, muelzko safailtxoaz edo.



Oratz-mafezkia (bordadoa), pagotxa edo irusta gofiak, txorten ta ofi berdeaz, prantzes-korapiloz egiñak.

Erdian ageri dan ofatz-mafezkia (bordadoa) da pagotxa edo irustagofi txorta bat, txorten ta ofi berdea, prantzes-korapiloz egiña.

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Iruña'ko Kaputxinotan.